



**EH Bildu talde politikoa**  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

## KONTROL MOZIOA

### SANTA KLARA UHARTEKO ITSASARGIKO ESKU HARTZE ARTISTIKOAREN AURREKONTUA DELA ETA

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga eta Haizea Garayk, EH Bildu eta Elkarrekin Donostia udal taldeetako zinegotziek, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten dute, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko azaroaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioen ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

EH Bildu eta Elkarrekin Donostia udal taldeek interpelazio bana aurkeztu genuen 2019ko azaroaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Santa Klara uharteko itsasargiko lanen kostuaren igoerari buruz. Izan ere, lanak hastearekin batera, ikusten ari da esku hartze horren kostu ekonomikoa lanak hasi aurretik iragarri zena baino handiagoa izango dela. Zehatzean, hasiera batean 1,5 milioi euroko kostua iragarri zen, baina jada 3,7 milioi inguruan kokatzen da.

Kultura zinegotziak batzordean bertan emandako azalpenetan, honakoa adierazi zuen: “Ez du gora egin kostuak. Egia da milioi bat euroko aurrekontua ezarri zela udal aurrekontuetan baina proiektua definitzen den heinean, aurrekontuak ere definitzen doaz”. Bigarren galdera batean lanaren gutxi gora beherako kostuen estimazio bat eskatu zen, eta zinegotziak uharteko itsasargian egiten ari diren lana “lan progresibo bat” dela erantzun zuen.

Aurrekontuaren igoera ez da nolana hikoia, eta itsasargiko esku hartze artistikoa dela eta hirian sortu den arreta eta kezka kontuan hartzea beharrezkoa dela uste dugu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen dugun zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkeztu dezala Santa Klara uharteko itsasargian egiten ari diren esku hartze artistikoen aurrekontu zehatza hiru hilabeteko epean.



**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

2.- Donostiako Udaltzako hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiru hilabeteko epean aurkeztu beharreko aurrekontu zehatzaren berri eman bitartean, Santa Klara itsasargiko lanak eten ditzala.

Donostian, 2019ko azaroaren 15ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Haizea Garay Gallastegui  
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia